



JARRAIBIDEA, 2016KO EKAINAREN 14KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIARENA, URTARRILAREN 15EKO 1/1996 LEGE ORGANIKOAK, ADINGABEKOEN BABES JURIDIKOARENAK, 13.5 ARTIKULUAN EZARTZEN DUEN ESKAKIZUNARI BURUZKOA, ADINGABEEKIN LAN EGIN OHI DUTEN LANGILEEI ZUZENDUA.

Funtzio Publikoko sailburuordeak Adingabekeen babes juridikoaren Lege Organikoaren 13.5 artikulua aplikazioaz eman zuen X/2016 Jarraibidearekin bat etorriz; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak lanpostuez modu egokian hornitzeko behar diren lanabesak kudeatzeko eskumena (188/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko; 16. artikulua) erabiliz, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak jarraibide hau ematen du:

1. XEDEA

Jarraibide honen xedek dira Funtzio Publikoko sailburuordearen 2/2016 Jarraibidea garatzea eta gidalerroak ezartzea Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa eskatzeko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan, haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezartzen duen bezala. Hain zuzen ere, jarraibide honetan arautzen da zer egin behar duten sailtako langile-kudeatzaileek ziurtagiri negatiboa eskatzen den lanpostuak eskuratzeko eta betetzeko prozeduretan.

Horrez gainera, ziurtagiri positiboa duten karrerako funtzionarioak eta lan-kontratudun langile finkoak beste lanpostu batera aldatzeko irizpideak ezartzen dira.

Halaber, I. eranskinean erantzukizunpeko adierazpenaren eta baimenaren eredia sartu da, eta II. eranskinean, ziurtagiria norberak zuzenean eskatzeko behar den informazioa.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Honelako lanpostuetako bat eskuratzeko duten langileei, honelako lanpostuetan ari direnei eta honelako lanpostu bati lotuta daudenei aplikatuko zaie:

- a.- Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetan ari diren Administrazio Orokorreko laguntzaileak eta mendekoak, eta lanpostu hauetako titularrak.
- b.- Adingabeen Ibaiondo zentroko lanpostuetan ari diren langileak eta haien titularrak.

3. ZIURTAGIRI NEGATIBOA EGIAZTATZEA, LANPOSTUAK BEHIN BETIKO ESKURATZEKO ETA BETETZEKO DEIALDIETAN

Lanpostuak eskuratzeko eta betetzeko prozeduretan lehiaketaren eta hautaprobaren deialdia egiten denean, oinarrietan betekizun berri hau ezarri beharko da, eta horren ildotik ziurtagiri negatiboa egiaztatzeko bideak finkatu beharko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56.3 artikuluan ezartzen



denarekin bat etorri (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

Horretarako, jarraibide honek ukitzen dituen lanpostuak eskuratzeko edo hornitzeko prozeduren deialdi guztietan ezarriko da lanpostua eskuratu nahi dutenek lehen aipatu diren eskakizunak bete behar dituztela.

Orobat, hizpide ditugun lanpostuetako bat eskuratu nahi duten pertsonen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, lanpostuaz jabetu aurretik, esaten duena ez dela jaso inoiz epai irmorik Lege Organikoak esaten duen bezala, eta, horrekin batera, baimena eman beharko dute Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko.

Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko baimena ematen ez dutenek berek zuzenean aurkeztu beharko dute Erregistroaren ziurtagiri negatiboa, lanpostuaz jabetu aurretik.

4. GAUR EGUN 2. OINARRIAN AIPATZEN DIREN LANPOSTUETAKO BATI LOTUTAKO LANGILEEN BAIMENA ETA EGIAZTAPENA

I. HEZKUNTZA SAILEKO LANPOSTUEI LOTUTAKO LANGILEAK

Hezkuntza Sailak epealdi jakin batean erantzukizunpeko adierazpena egin eta ziurtagiri negatiboa egiaztatu behar dutela adieraziko die gaur egun ikastetxeetan ari diren langile batzuei, hain zuzen ere jarraibide honen aplikazio-eremuko lanpostuetako baten titular direnei edo halako lanpostu bat gordeta dutenei. Horrez gainera, langile horiei azalduko die, nahi izanez gero, baimena eman diezaioketela Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko.

Aurreko puntuan aipatzen diren erantzukizunpeko adierazpena egiteko eta kontsultarako baimena emateko, ikastetxe publikoetako langileek ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dute jarraibide honen eranskinean dagoen eredia beteta.

Izapideak ahalik eta errazen egin ahal izateko, gaur egun lanean ari diren langileek hezkuntza irakaslegunea web-atariaren bidez bete behar dute eredia, bakoitza bere esparru mugatuan sartuta. Eredua hala betetzea Administrazioari aurkeztutakotzat joko da ondorio guztietarako.

Atari horretan erregistratuta ez dauden langileek esteka hau klika dezakete erabiltzaile modura balidatzeko:

https://www5.hezkuntza.net/appcont/control_acceso/irakaslegunea/index.html

Ziurtagiria zuzenean eskatzea hautatzen duten enplegatu publikoek II. eranskinean azaltzen diren bideak erabil ditzakete horretarako. Hala eskatuz gero, ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dute ziurtagiria Hezkuntza Sailean.

Hezkuntza Sailak egingo ditu Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko izapideak, eta bere langileen erregistroan sartuko ditu.

II. ADINGABEKOEN IBAIONDO ZENTROKO LANPOSTUEI LOTUTAKO LANGILEAK

Ibaiondo zentroko arduradunak epealdi jakin batean erantzukizunpeko adierazpena egin eta ziurtagiri negatiboa egiaztatu behar dutela adieraziko die gaur egun bertan ari diren



langile batzuei, hain zuzen ere jarraibide honen aplikazio-eremuko lanpostuetako baten titular direnei edo halako lanpostu bat gordeta dutenei. Horrez gainera, langile horiei azalduko die nahi izanez gero baimena eman diezaioketela Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko.

Ibaiondo zentroko arduradunak eranskineko baimen-eredua helaraziko die ukitutako langileei, bete eta sina dezaten. Baimena sinatuta aurkeztu behar zaio zentroaren arduradunari 2016ko ekainaren 30a baino lehen.

Ziurtagiria zuzenean eskatzea hautatzen duten enplegatu publikoek II. eranskinean azaltzen diren bideak erabil ditzakete horretarako. Nolanahi ere, Ibaiondo zentroko langileek ekainaren 30a baino lehen egiaztatu behar diote ziurtagiri negatiboa bertako arduradunari.

Zentroaren arduradunak egingo ditu Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko izapideak, eta bertako langileen erregistroan sartuko ditu.

5. ZERBITZU-EGINKIZUNETAN EDO ALDI BATEZ BESTE LANPOSTU BATEAN ARI DIREN LANGILEEK BAIMENA EMATEA ETA ZIURTAGIRI NEGATIBOA EGIAZTATZEA

Ziurtagiri negatiboa ezinbestekoa da jarraibide honen aplikazio-eremuko lanpostuak eskuratzeko eta hornitzeko; deialdi guztietan eskatuko da.

Zerbitzu-eginkizun baterako edo aldi batez beste lanpostu batean aritzeko deialdi batean parte hartzen duten langileek eskaerako atal bat bete dezakete erantzukizunpeko adierazpena egiteko eta kontsultarako baimena emateko.

Baimenak Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak edo Ibaiondo zentroaren arduradunak kudeatuko ditu. Baimenak zein kontsulten emaitzak langileen erregistroan sartuko dira.

Honelako deialdi batean ari den norbaitek ez badu ematen baimena kontsultarako, 10 eguneko epealdia edukiko du ziurtagiri negatiboa aurkezteko, eskaerak aurkezteko epealdia amaitzen denetik. Ziurtagiria epealdiaren barruan aurkezten ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira ezinbesteko eskakizuna ez betetzeagatik.

6. LAN-POLTSETAN DAUDENEK BAIMENA EMATEA ETA ZIURTAGIRI NEGATIBOA EGIAZTATZEA

Ziurtagiri negatiboa behar den lanpostuetarako lan-poltsetan daudenei jakinaraziko zaie hura ezinbestekoa dela lanpostua eskuratzeko. Horrez gainera eskatuko zaie 2016ko ekainaren 30a baino lehen aurkezteko jarraibide honi erantsitako erantzukizunpeko adierazpena eta baimena.

Baimenak lan-poltsak kudeatzeko sisteman sartuko dira. Poltsa batean dagoen norbait kontratatu edo izendatuz gero soilik egingo da kontsulta Erregistro Zentralean.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzari kontsulta egiteko baimena ematen ez diotenek ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute kontratazioa egiten denean. Ziurtagiria kontratazioaren aurreko 3 hilabetetan egina izan behar da.



7. SEXU-DELITUGILEEN ERREGISTRO ZENTRALEAN KONTSULTATZEKO BAIMENA ETA KONTSULTA: ONDORIOAK

I.- Baimena eta ziurtagiri negatiboa

Izendapen bat egin behar denean, organo kudeatzaile eskuduna baimenaz baliatuko da Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko. Izendatuak kontsultarako baimena eman ez badu, kontratatu aurretik ziurtagiri berria aurkezteko eskatuko zaio.

II.- Ziurtagiri positiboa

Jakinez gero langile batek ziurtagiri positiboa daukala edo inoiz sexu-askatasunaren edo sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik epai irmoa jaso duela, zerbitzutik kenduko da berehala.

Karrerako funtzionario edo estatutupeko langile batek ziurtagiri positiboa edukiz gero, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 81.2 artikulua aplikatuko da eta behin betiko kenduko da dagoen lanpostutik, bertan jarduteko eskatzen den betekizun bat ez betetzeagatik, eta jarduteko gauza den beste batean, lanbide-hobekuntzarik ez dakarren batean, ipiniko da. Beharrezko inguruabar horiek betetzen dituen lanposturik ez badago, langilea derrigorrezko eszedentziara pasatuko da.

Lanpostuak aurkitzeko irizpideak Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2011ko ekainaren 28ko Aginduak, Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioak behin-behinekoz atxikitzeko prozedura arautzen duenak, ezartzen ditu 3. artikuluan.

Bitarteko funtzionario edo aldi baterako estatutupeko langile batek ziurtagiri positiboa edukiz gero, bertan behera geratuko da bitartekotasuna edo aldi baterako estatutu-harremana, izendatutako lanpostuan jarduteko ezarritako betekizunak betetzeari uzteagatik.

Langile lan-kontratudun finko batek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri positiboa jasoz gero, bere lanpostutik kenduko da, bertan jarduteko eskatzen den betekizun bat ez betetzeagatik, eta jarduteko gauza den beste batean, lanbide-hobekuntzarik ez dakarren batean, ipiniko da.

Lanpostu berria aurkitzeko irizpideak karrerako funtzionarioen kasuetarako ezarritako berak izango dira.

Beharrezko inguruabar horiek betetzen dituen lanposturik ez badago, langilea arrazoi objektiboagatik kaleratuko da, bere egitekoetan jarduteko gaitasuna galtzeagatik.

Halaber, aldi baterako lan-kontratudun langile batek (epai bidez kontratu mugagabea dutenak barne) ziurtagiri positiboa edukiz gero, arrazoi objektiboagatik kaleratuko da, bere egitekoetan jarduteko gaitasuna galtzeagatik.



8. SEXU-DELITUGILEEN ERREGISTRO ZENTRALEAN KONTSULTATZEA

Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzea organo hauen egitekoa da:

- Funtzio Publikoaren Zuzendaritza
- Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza
- Ibaiondo Zentroaren Zuzendaritza

Langileen Erregistroan baimenaren berri ezarriko da, eta kontsulta noiz egin den edo ziurtagiri negatiboa noiz eman den zehaztuko da.

Erregistroa kontsultatzen duten langileek kasuan kasuko zuzendariaren baimena eduki behar dute elkarreragingarritasun-zerbitzuetan kontsultak egiteko.

9. FITXATEGIA SORTZEA

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenarekin bat etorritik, datu-fitxategi bat sortuko da, lege horrek ezartzen duen mailako babesa daukana eta behar diren bermeak eta datuak eskuratzeko, ezabatzeko eta zuzentzeko sistemak dauzkana.

Hizpide ditugun lanpostuetako batean ari diren langileen edo halako baten aritzeko poltsa batean sartzen direnen erantzukizunpeko adierazpenak, baimenarekin batera aurkeztuak, edo ziurtagiriak Langileen Erregistroan edo poltsak kudeatzeko sistematan sartuko dira.

Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten pertsonen buruz Erregistroan biltzen diren datuen berri emateko, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean arautzen duen abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak 9.2 artikuluan ezartzen duena aplikatuko da.

10. NOLA JARDUNGO DEN BAIMENA EDO ZIURTAGIRI NEGATIBOA EZARRITAKO EPEALDIAN AURKEZTU EZÉAN

Ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharra ezarrita daukan lanpostu bat eskuratzeko edo hornitzeko deialdi batean parte hartzen duten pertsonen ez badute aurkezten baimena edo ziurtagiria ezarritako epealdiaren barruan, ezin izango dira jabetu lanpostuaz.

Halaber, ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharra ezarrita daukan lanpostu batean lanean ari direnek eta halako lanpostuen titular direnek ez badute aurkezten baimena edo ziurtagiria ezarritako epealdiaren barruan, lanpostutik kenduko dira, jarduteko eskatzen den betekizun bat ez betetzeagatik.

11. ATZERRIKO HERRITARRAK

Atzerriko herritarrek eta Espainiako herritartasunaz gainera beste herrialde batekoa ere badutenek Sexu Delitugileen Erregistro Zentraleko datuak kontsultatzeko berariazko baimena txertatuta daukan erantzukizunpeko adierazpena ez ezik honako hau ere aurkeztu behar dute: jatorrizko herrialdean edo herritartasuna hartu duten herrialdean aurrekari penalik ez dutela adierazten duen ziurtagiria, nazioarteko hitzarmenen arabera itzulita eta legeztatua, Adingabekoen babes juridikoaren eta Kode Zibila eta Prozedura



Zibilaren Legea modu partzialean aldatu dituen urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak 13.5 artikuluan aipatzen dituen delituei dagokienez.

12. HIRUGARRENEK EGITEN DITUZTEN ZERBITZUAK

Adingabeekin lan egin ohi den zerbitzuak egiteko edo prestazioak emateko hirugarrenak kontratatzen dituzten sailek erantzukizunpeko adierazpena eskatuko die kontratatzen dituzten entitateei, hain zuzen ere honako hau dioena: adingabeekin ariko diren langile guztiek (entitatekoek zein azpikontratatzan direnek) jarraibide honetako 13.5 artikuluan eskatzen den ziurtagiri negatiboa dutela.

Eskakizun hau Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak prestatzen dituen administrazio klausula berezien pleguen eredueta eta kontratu-ereduetan sartu behar da.

Halaber, sailek osorik edo zati batean adingabeekin lan egitea dakarten egitekoetarako diren diru-laguntzen edo laguntzen izapideak eginez gero, diru-laguntza edo laguntza eskatzen duten pertsoneri eta entitateei erantzukizunpeko adierazpena eskatuko die, hain zuzen ere honako hau dioena: adingabeekin ariko diren langile guztiek jarraibide honetako 13.5 artikuluan eskatzen den ziurtagiri negatiboa dutela. Eskakizun hau diru-laguntza eta laguntzen deialdien aginduetan ezarri behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 14a

JUAN M. BARASORDA GOICOECHEA
FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Funtzio Publikoaren Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Dirección de Función Pública



I. ERANSKINA

ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARI BURUZKO URTARRILAREN 15EKO 1/1996 LEGE ORGANIKOAK 13.5
ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA SEXU-
DELITUGILEEN ERREGISTRO ZENTRALAREN ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO BAIMENA

1.- DATU PERTSONALAK

IFZ / AIZ / PASAPORTEA

JAIOTZEGUNA

2.- ADIERAZPENA ETA BAIMENA

Behean sinatzen duenak adierazten du ez dutela kondenatu epai irmo baten bidez espetxe-zigorarekin Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak –Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea hein batean aldatzen dituenak– 13.5 artikuluan aipatzen dituen sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

Baimena ematen dut, beharrezko datu-baseak kontsultatzeko bere izenean 1/1996 Lege Organikoak 13.5 artikuluan aipatzen duen ziurtagiria eskatzeko, adingabeekiko ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari den bitartean edo jarduera hori hasten duenean.

Ez dut baimena ematen

Baimena ematen ez badu, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko du, Zuzendaritzak ziurtagiri hori eskatu ahalko baitu langilea bere mendeko zentro publikoetan adingabeekin ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari den bitartean.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Sinadura

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, jakinarazten dizugu agiri/inprimaki hau betez eta honekin batera aurkeztutako agirien bidez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, dagokien tratamendua izan dezaten. Era berean jakinarazten dizugu datu horien bilketa eta tratamenduaren xedea Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak 13.5 artikuluan ezarrutakoa betearaztea dela.

Lege Organiko horretan aurreikusitakoaren arabera, datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahalko dituzu, langile-arloan eskumena duen organora idatzi bat bidalita.



II. ERANSKINA

SEXU-DELITUGILEEN ERREGISTRO ZENTRALAREN ZIURTAGIRIA NORBERAK ZUZENEAN ESKATZEKO BEHAR DEN INFORMAZIOA

Baldin eta interesdun batek ez badio eman nahi baimena organo kudeatzaileari edo, eman arren, sisteman ez badago behar den informazio guztia, berak zuzenean eskatu beharko du ziurtagiria; bi modu daude:

Baliabide telematikoak.- NAN elektronikoa dutenek Justizia Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez eskura dezakete ziurtagiria. Bi aukera daude: ziurtagiria posta elektronikoz jaso zuzenean; sakelakoan mezu bat jaso eta bertan txertatuko kodea erabili ziurtagiria eskuratzeko.

Bertaratu.- Interesdunek honako hauen bitartez helarazi ahal diote eskaera Sexu Delitugileen Erregistro Zentralari:

- a) Justizia Ministerioaren lurralde kudeatzaileak.
- b) Gobernuaren autonomia erkidegoetako ordezkariak eta probintzietako ordezkariordetzen erregistroak, eta Administrazio Publikoko organo guztietako erregistroak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan ezartzen duen bezala.

Postaz.- Eskaerak Justizia Ministerioaren lurralde kudeatzaileetara bidal daitezke, edo bestela Justizia Ministerioaren Herritarrei Laguntzeko Zentrora (La Bolsa kalea 6, Madril).

Ziurtagiria maiatzaren 30a baino lehen bidali behar da; hori gorabehera, kontratazio bakoitzean eskatuko da.